Ceruan errecibitu. Çaïten, lauda.

hiur garren egunean
Igande barco goïcean?
phizturic loriapean. Çaïten. lauda.



Cer Victoria çuretçat
Cer boscario guretçat?
Cer laido Cure-etsaïentçat Çaïten &c

Juduac ciren harritu
Phiztu Ciñela dudatu!
guciac ciren itsutu. Çaïten lauda

Gardac emanic gardian
Sepulturaco harrian?
siguillureguin batian Çaïten lauda

Guciac inutil ciren
bothorea baïtcinduen?
Jaïnco semea baitciñen. Çaïten, &c.

Behin baicen hil etciñen
bethicotçat phiztu ciñen?
Behin hil behar cinduen. Çaïten. &c

Gu ere phiztuco gare
loriagui dudu gabe?
Jaïnduguri hilteen bagare. Çaïten, &c.

Eguiçu othoï gu ere
Bici gaïten bethiere?
Çugami errurundu gabe. Çaïten lauda!
Çaïten lauda Çaïten lauda Çaïten lauda

Bir-hala.

## Cembeit Saïnduen Bicitcea.

### Jaun doni laurendi Martira.

Jaun doni laurendi espaïnian sorthu
Cen aragoniaco hiri huesca deitcen den
batean, prestuac eta jaïncotiarrac
Citucen bere burasoac eçauten deusere
guphidetsi altchatcecoteat bere semea
jaïncoaren legean. laurens probetchatu
Cen eman Citçaïon escolaz eta begoietan
Citucen exemplu ederrez: jaïdura handi
bat Cuen unguirat, bihotz ontasuna, eta
garbitasuna Cicen beregaïtzqui haren
baïtan hain damic seinaletcen Cicen
berthutea, ecin erran daïte noraraïño
heltcen cen laurensen amudioa Jesu-
Christoren alderat, eta erreliguneorentçat
sustatua Cen khar saïndua. behatcen
Cin erromari guiristinotassuncaen ithur-
burruari becala; hargatic erromahi içan
Çuen hiri hartan bere burua, erromaco
guiristiñoec laster eçaguta Cituzten
aroutz garte haren merecimenduac, eta
berthute miragarriac. aita saïnduac
ecin ederrez leçaqueyen gure saïndua, eta
haren inocentcia altchatu Cuen ordena
sacratuetarat, eta gure saïndua içan cen

bereçia erruimaco çarpi diacretaric
lehenbicicotçat. Çargu hari çatcheïtzon
ez choilqui ematea fidelei Communiat-
çerat aïta saïnduac meça erraten çuen
alditan, baïñan oraiño eliçaco ontassu-
nen arthatcea eta pobren sokhorritcea,
hulaco cargu batec ecabuertcia handi bat
galdetcen çuen: ecin citequeyen escu
hobetan. mundu guciac laudorio çuen
gure saïnduaz. ochala! utci balitz
eliça baquean; baïñan ez; altchatu
çen persecucione bat osoqui ikhara-
garria. suntsi araci nahi içan çuten
guiriztiñoen aiphamena bera isur-
araciric heyen odola.

3 Valerien emperadoreac puintce olhe
eta ekharcari baten fama çuen paga-
noen artean halacoa aguertu cen erre-
guiñatceco hartean guiriztiñoen alderat.
erregue batec ere etciosten egundaiño
eracutsi hare becambat adiskidetasun,
hunembat guiriztiño baçen haren pala-
cioan non idurii baitçuen eliça bat.
urdean guiriztiñoen alderaco empera-
doreaaren ontassuna seïñalatu balin
bacen hastapenean, erran behar da
nonbeït gueroat dorphequi ekharri



citucla. batetic bertceraco gambiamendu-
ondicorco hura heldu cen macrien çaritçun
baten ganic. macrien hura cen guiçon bat
ethorqui aphalecoa, altchatua bere gaix-
taqueria icigarrien bidez ohore handiene-
tarat, emperadore içateco hirrixan bici
çen, eta hobequi heltceco bere nahi
çorrat, largatu çuen bere burua, exaï
gaïchtoaren escutarat. exaï gaïchtoac
aguindu çioen erresuma hill araste[n]
bacituen guiriztiño guciac.

Macri~~ianec~~ escuratu çuen valeriena,
emperadore hunec condemnatu cituen
heriotcerat apheçpicu, eta apheç eta diä-
cre guciac. burucaguitaric hassi cen
manu cruel haren execucionea; sixta,
aïta saïndua içan cen hartan preso
altchatua eta gathetan emana. saïndoni
laurendi aspaldiun martiriwaren ondoan
çabillan; jaquin çuenaco san sixta
preso cela, sorthu cen bera ere preonde-
gui berean hareguin egotecotz, etçuen
haïn larter icusi san sixta non abiatu
baïtcen erraten O! aïta saïndu handia
nola cohasque sacrificiorat çurequin
eraman gabe oraï artaraïno seguitu

içan Citiçen ceure diacrea. etçaitzo
nagui fida ene fedeari, edo ene animoari:
eman etçaitçu bata eta bertcea frogarat
eta icusico duçu ez dudanez bada mere-
citcen eguin darotçatçun ohorea altchatcen
çaitudan cargurat. Diacrea jarraiqui behar
çaio bethi apheçari Cergatic uzten
nauçu bada hain churitcha baninz
becala? etçaitçu bada bere bidean
dela umea içan dadin bere aitarequin!
eta ardia ez dadin urrun bere artçaiña
ganic. San Sixto uquitua içan cen bere
diacrearen sentimendu oner: erran içan
ciçon: Consola çaite, ene semea, com-
plituren da laster çure nahia. Cerua bictoria
handiago bat daducaçu çuretçat cuhauc; heda
etçatçu pobretarat escutan ditutçun eli-
çaco tresnac eta prepara çaite martirioarat.
Cer boçcario berri bere odola jesu christo-
rentçat eman nahirico hiriçan beci cen
gure sainduarentçat! ez du galtcen mome-
ntoric: bihurtcen diotçote guiriztinoei
elicaco orlamentac eta jarro sacratuac.
hartcen du pobrentçat aldacatua cen
dirua, eta badarama guiriztiñoac
gordeac ciren ereimaco lekhu eta-



çokho guciétarat laguntcen ditu bere
eguin ahal guciez. gure sainduac yaquin
çuen baçirela cembeit guiriztiño pobre
ihes eguin çutenac narcina deitcen cen
guiçon baten etcherat jo çuen harat ere.
lagundu içan citucen bertceac becala eta
bihurtu içan çuen bista cembeit urthe
hetan itsua cen bati yaquin çuen orobat
baçirela bertce lekhu batean hiru hogoi
eta hiru guiriztiño gordeac, hec ere lagun-
du citucen, eta erakharri zituen egotcerat
bere fedean. San Sixto Condemnatua
içan cen burua ebaquitcerat. jaundoni
laurendic içan nahi çuen berriz ere
aita saindu haren ikhusteco consola-
mendua. bathu çuen hiltcerat caramatela.
arthiqui çuen bere burua haren oinetarat
nigar marrasquetan eta erran ciçon escu
onetan utzi citucela elicaco tresnac lagundu
citucela pobreac, eta eguiteco gueldircen
citçaion gucia cela haren laguntça bere
biciaz eguiteraat cuhaun sacrificioan. aita
saindu hori consolatu içan çuen bere
diacrea erraten ciçola hilbuco cela hura
ere khoroa bererat hiru egunic barnean
eraman ciren oraino: ene semea jaincoac

icusten du ena adin handiaren herbal-
tasuna. tormentz ariñac daduzca enetzat;
Cutaz denaz becamblatean nahi du eraman
deçaçun bictoria ospe handitan emanen
duena. hala guerthatu cen, seldaduac
hedatu Cuten emperadorea ganat berria
laurent diacre gazteac ontasun haiñitz
gorde çuela. printce diru gosse eta gui-
ristiñoen etsai hare har araci çuen gure
saindua. aguertu cen haren aitciñerat
aire errezpetuz eta fermutasunez batre
bategiñ. lehenic galdeguin cioen cer cen;
ihardetsi Cuen ahalguerie gabe guiristi-
noa cela, eta erromaco eliçaco diacrea,
guero galdeguin citçayon non citzaen fidatu
Citçaizcon ontasunac. ihardetsi cuen
hoien gaiñecon, aguertuco citzaela ontasun
hec nahi baciotson utci hartaco dembora.
eman citçayon egun baten ephea. gure
saindua iragan çuen egun hura atzeman
ahal cetçaqueyen pobre gucien biltcen
eman cen bera hequien buruan. eta hum-
bildu cen emperadorea ganat erraten
Cioelaric Complitu çuela haren manua;
harequin batean eracutsi ciotçan pobre
hec guiristiñoen tresoric baliosenac



içan balire beçala urrun da halacoric igu-
riquitcen baitçuen emperadoreac, idoiztatua
Caducan bere burua eta eman cioen beregogo-
ari behar çuela garrasqui punitu diacre
saindua. acota-araci çuen sarrasquitan
eman araz arteraiño; ondoan erran cioen:
edo behar diotzutec offrendatu gure jaincoei
sacrificioac, edo behar duc jasan heriotce
bat egundaiño içan den Crudelena.

Jaun-doni laurendic ihardetsi cioen em-
peradoreari; çuen jaincoec erdituste mere-
citcen guiçonei bihurtcen çaitzten ohoreac
ere: nola beraz, o! printcea, nora ahal
diteçaquedaçan hequien adoratceaz? erdut
tormenten beldurric, beraz çure dichidnea
eznaute lotzatcen. esparantça dut païratu-
ren ditudala jaincoaren graciarequin batean
fermutasun handi batequin, eta hortic bere-
tic ecagutuco duçula nic adoratcen dudan
jaincoaren bothere gucitzcoa. emperadoreac
ikhusi çuen cer nahi eguin cecan etçue-
la escuratuco gure saindua, halacic ere,
sar araci çuen presondeguian, eta utci çuen
hippolitaren arthoren azpian, Jaun doniten

aire modestac, et prenndeguian eguiten cituen
miracuilluec etakharri cuten jaïncoa ganat
hartaz ichardetsi behar cuen eta hippolita
deitzen cen guiçon ohoratu hura, ceinac erre-
cibitu baitcuen bathayo saindua. orgenia
urratzerat, eraman çuten saindoni laurendi
hirico yuyearen aïtcinerat, yuyeac empera-
dorearen manuaren arabera, etzen deusere
guphidetsi haren escuratzeco tzat baliatu
cen laresenguz mehatcuz. aguintcaz hitz
batez, hartu cen alde guicietarat, orduan
alferretan içan ciren haren eguin ahal gueciac
gure saindua eguindaiño baiño khar gue-
hiago aguertzen çuen yesu christorentçat.
yuyeac trencaraci cituen haren hezur gueiac
eta yaçar araci ciren burdin covutzezco
acotez. saindoni laurendi etzen batere
cantitzen tormenta hec guzien erdian.
benedicatzen çuen jaïncoa, eta cantatzen cituen
haren laudorioac. paganoac berac miretsiac
ciren ikhustez haren bihotzean cen eta
campotic ere eracihten çuen descantsua.
yuyeac eguindaiño beçala galdetu cioen
nongoa cen, eta cer erraliguina çuen, eta
cer bicitze çiraman.
saindoni laurendic ichardetsi cioen yuyeari



espaïniacoa cela, eta erroman iragan cituela
bere gastetasuneco urthe guehienac erancioen
oraiño: içandut corrienta bathayoa, haur danic
errecibitzeco, yaincoaren leguean altchatua
içateco, yuyeac ichardetsi cion: nola duc
atrebentcia erratecō eçaguteen ducala jaïnco-
aren leguea, arbuyatzen dituanaz gueroz
gure saincoac. gure diacreac erran cioen:
ceren eçaguteen dudan jaïncoaren leguea,
arracoiñ hortaz beraz arbuyatzen ditut fruxue
gabeco idolac; sentiu eracberac erraten
ahal du uste içatea badela jaïnco bat
baiño guehiago. orduan yuyeac ichil araci
cioen gure saindua erraten cioelaric, gau
hartan jasan behara cituen tormentac ira-
khatsico ciotela berteela mintçatzen.
saindoni laurendic ichardetsi cioen: ezdut
bada nic hala uste; ecen ene tormenta
gueiac hambat bascariosco ithurburu guer-
thatuco dire enetzat, eta ene diocun gaua
içaneda enetzat eguindaiño iragan dudan
estiena. yuyeac eman araci çuen gure
diacre saindua crisela baten gainean, eta
beldurrez lasterreguei erre çadin, etzuen
nahi eman çaquioin su bicieguibat,
baiñan su arin bat emequi emequi erraco
çuena, eta tormenta guehiago iraunaraciaco

Çuena paganoac conbertitu içan ciren orteca, ikhusteaz Jaun doni laurendiren fermutasun eta bizcario miragarriac. huntaraiño cen lorriatua pairatceaz jesu-christoren ohoretan non ezean baitaiden aire hirrita bateguin yuyeari, arqui cela erea alde batetic, eta itçul araz Cecala bertce alderat.

Horra nola hil cen gure Saindua erro-man datça haren gorphutçoren cathiri handiena, badire frantcian ere haren erlequiac.

## Jaun doni Bichintcho Martira.

Jaun doni bichintco espaiñaac içan duen martir aiphatuenetaric da. Saragoçaco etche on batetaric çuen bere ethorquia. Valera hiri hartaco aphezpicua altchatu içan Çuen gure martira artha bereci batequin. irakhatsi citzun gure erreligionea eta izpirituaren arguitceco behar direnac: Jaun saindu hare arequinequin ikhusten Çuen bere dicipuluaren aitcinamendua yaquintasunean; ordenatu çuen diacre, eta eman cion predicatceco botherea, Jaun doni bichintchoc irabasten citien



bihotzac bere hitzen gantçuduraz; arguitcen citien hura entçuten çuten guiriztiñoac, eta conbertitcen paganoac berac.

Diocletien eta Maximien emperadoreac bitz araci çuten persecutione ikharagarri bat guiriztiñoen contra. Seiñalatu cen, ordu hartan dacien, Saragoçaco gobernadorearen. Kharra bere printcen alderat. Complitu çuen cerrozqui hequin manua. har araci cituen Valera eta bichintcho, eta eraman araci gathexatuiric Valenciarat aguian bide luceco nekheac, eta hiri hartarat hel arteraiño yasan behar çuten tratamendu gorpheac erakharriren cituela gure erreligione sainduaz arnegatcerat, ordean bideco nekheac eta gosea pairatceac etçuten batere cordocatu hequien fede bicia. hain hascarrac ciren Valentciarat heltcean nola harat partitcean. Dacienec uzte içan çuen hobequi escuratu emetasunaz ecen ez gorphetasunaz. hura nola hartu cen. lehenic ezean cion valexari haren adin handiac eta haren gorphutzaco herbaltasunac bicitza erti eta descanxuscoa galdetcen çuela, eta nahi baçuen halaco bici dohatsu bat arqui çuela emperadoreen

 manuari obeditcea. guero erran cion
bichintchori: çutaz denaz beçamlatean,
O! ene semea ez ahal duçu ukho eguiñen çure
ethorqui ohoragarriari, tobera çare arguitua
eta ederqui escolatua axeguin ez içateco çure
gonatceaz emperadoreen gracia onac. gaztea
çare, eta gauzi eguiña mintçatçailla ederra, cer
ezduçu beraz iguriquiteco guere printceen
ganic! gauça bat da bakharra eguin behar
ducuna ohore handienetarat helteco, eta gauça
hura den errechena da; arqui duçu largatcea
çure buratoen erreligionea: çatozquit beraz,
O! ene semea obedi çaçu emperadoreac:
beguira çaite hisitiar içatetic: hala guer-
thatcerat, segur cinduque heriotzeric crude-
na eta laidozkoena.

Valere aphezpicu çaharic nekhez minça
cen, manatu cuen bere dicipulua dacieni
ihardestear; orduan bichintcho hari cen
huneta mintçatcen: ezduçu ceren eman çure
gogoari munda huntaco ohoreac eta bicia gal
arasteco mehatchuac gai direla cordocatceco
gure fedea ez da guretçat halaco ohoreric
eta plaçeric nola gure bicia ematia Jesu-
Christoren ohoretan. Dacienec minqui
hartu citzaca gure diacrearen hitz laidagarriac


eman cen hamindurean, eta erran cion, edo
offrendatuco ducula gure jaincoei intzentsua edo
gertoco çaitçu bicia. bichintchoc ihardetsi cion
beca goraturic: ya erran dautçut guehienic bil-
hatcen dugun ohorea, eta çuc eguin ahal dieça-
queguçun axeguiñic handiena direla gu biciaz
gabetcea: guehiago dena: yaquin ahal deçaçu
çu lastermago unhatuco çarela gure tormen-
tatceaz, ecen ez gu unhatuco baigara pairatceaz
Jesu christoren ohoretan.

Gobernadoreac ecin jasan çuen guehiago
gure gucion gazte sainduaren fermutasun
handia, egorri çuen desterrurat Valera çahar-
-ra, eta cen bertze gaztiguric manatu aphez-
picu hunentçat baiñan bista çuen bere erra-
bia guia bichintchoren gainean.

Manatu cituen burreuac baliatceaz tormen-
tarie borthitcenez armatceaz eta iciagarriagoac
yacartea diacre sainduari arbuyatcea citue
naz guero bequien idola haren manu crudela
laster içan cen complitua burreuc estiratu
citen gure saindua hegar guldac crascatuac
içan arteraino coan. Dacien barbaroa etcen
hartan baratu, icusiric bichintcho dostatcen
becala cela tormentu hartaz. larruaraci
cituen haren biz carra eta sahetsac burdin
nezco behatceaz. Dacienec uste çuen gure

 Martira sainduac arthiquiren cuela
cembat harbeherapen eta niger chorta; ordean
enganatu cen: bichintchoc lehen bicico tormen-
tac becala, yasan cuen bigarrena ere; erran
nahi da, descanzu eta bozcario guciequin.
erran behar da gure jaincoac badaquiela arint-
cen eta eztitcen sofricarazi dotzhoenac
eta garratcenac haren ohoretan hartcen dire-
nean. urrun da bichintcho loxatu eta
assaldatu baitcen tormenta arraillagarri
hec gucien erdian; aitzitic erraten cion dacieni
etaicela behiñere yagarriren berac nahi
becambat, dera fio hunec oraiño guehiago
tarritatu cuen gobernadore cruela.
nola baiteaquien cauri huntuec oiñhace
oraiño guehiago ematen dutela, berriz
idequiten direnean manatu cuen berriz
larrutcearz gure saindua. içan cen on-
dicoz: obeditua: Iaundoni bichintcho
emain içan cen sarrarquitom odola cariola
gorphutz gucitic. etçuen guiçonaren
iduriric ere, miracilla bat cen bici ahal
içatea estatu lastima garri hartan.
dacien barbaroac eçagutu cuen altferra-
tan citela tormenta guciac eçin garaitua
cela gure sainduaren fermutasuna;


ordean erran etçadintcat etçuela deusetan
ere complitu bere nahia, galdeguin ciotçon
bichintchori liburu sainduac arthiquitceco
surat, erraten ciolaric baldin ematen bacio-
tçon, harc ere utçico ciuela bicia.
gure diacre sainduac ihardetsi cionaire
dortailla batequin yrayeari hobe cuela
baliatcea suaz (~~[illegible]~~) akhalatceco hari
cuen scriptura, ecen ez etretceco liburu sainduac
eta ecin çagoquela hari declaratu gabe condem-
natua içanen cela bera lehen bethico surat
ez baciuen ukho guiten idolen adoracioneari.
hitz haue gaitcitu citçaitzcon dacieni: eman-
araci cuen, orduan berean suaren erdian
burdinezco punta batçuen gaiñean: tormenta
berri hunec etçuen errebarritu baicic gure
martiraren bozcarioa, mundu gucia lastu-
raz eta urricalmenduz bethea içan cen
ikhusteaz gorphutz eroi larruta bat, eta
hecuriac agueri cituena, sua bera arqui
içan ez balitz beçala soffriarastecotzat,
burreuc gantçutcen cituzten oraiño gatcez
gure sainduaren çauriac. burreuc cer nahi
eguin cecaten, Iaundoni bichintchoc etçuen
behinere galtcen barneco baquie goçoa, beguiac
altchatuac çaducan ceruirat, eta benedicat-
cen cuen jaincoa bere tormenta gucien erdian.

 Daciénec Khen araci çuen bitác Sorarasta
cetrat prebondeguë ilhun batean. harat cenean,
eçan araci çuen eltcepusca batçuen gaiñean,
eta etçuen nahi eman ciçoten yatarat, ez
eta laguntçarie batere; erdean jaincoac
bere artharen arpicun caducan gure diacrea.
huntsi araci cituen prebondeguico ilhun-
beac eta hel araci cituen haren bihotcerat
Contsolationezic nahicarazcoenac. Jaun-
doni bichintchoren çauré guciac içan
ciren ordu hartan bereau sendatuac, eta
aurkhitcen ciren haren baitan lehenrco
hascartasun berac. Cer espantimendu
Soldaduentçat icustear Jaun doni bichint-
cho çauri icigarri gucietarie osoas sendatua
eta arrosetarat itçulia eltce pusca hec
guciac! miracuilla harc eguin çuen pre-
bondeguicetan artha cuena combertitu içan
baitcen bertce hainitzequin batean. daciéu
sarthu cen furia gucietan enteun içan
Cituenean gure saindvaren bervi ecin com-
prenituzcoac hartu çuen bertce bide bat
guti conpuntcen cena verduraino açuerta
çuen Crudelitatearequin atherazaci çuen
prebondeguitic. etçan araci çuen oha
guri batean, eta eman araci ciotçan

laguntça guciac. tormenta gucietarie handiena
içan balitz beçala etçaisa içatea ohe guri
hartan gure saindvac galdu çuen bicia harat
erdueo.

Jaundoni bichintcho ehortcia içan cen Vale-
nteiaco inguruetan, frantsiaco Erregue batec
sethiatu eta hartu içan çuen duela milla
eta berrehun eta combeit urthe, saragoçaco
hiria, eta yabetu cen diacre saindvaren estolar
erlequi preciatu hau aurkhitcen da Parisico
berchala den San germaineco elicam.

## San Andres Apostolua

Erran ican dugu San andres Jaundoni petriren
anaya cela; beraz galilearra, eta beitsaidacua.
entcun çuen eguin batez Jaundoni Jauni bap-
tista erraten, jesu christoz mintço cela horra
Jaincoaren bildotsa. ordu beretic jarraiqui
citçayoen Salbatçailleari, çuenarie laguntçat
bertce dicipulu bat evanyeliac icendatcen
ez duena. jesu christo itçuli cen heyen alderat
eta erran ciotçen: noren bilha çabiltçate?
etçuen galde hau eguiten etçaquielacotzat
heyen barneco bervi; baiñan azeguin çuen
çabal ciotçoten bere bihotçac. bi dicipulu
hec ihardetsi ciotçen: nausia, non da çure
egoitça? Salbatçaillea erran ciotçen:
Catorte eta icus eçaçue, abiatu ciren jesusen

ondotic, eta harequin iragan, cuten eguin
hura gucia. Cer biscario! Cer centsulamendu
goço etaiten ediren jenuen Sulas Sallaçarrietan.

Andresec predicatu ruen cembeit dembo-
rar judeaco herrietan; iragan cen guero
traçarat, eta epiarat; ibilli cen oraiño
Seytian, Capadician eta albanian barna.
hunetsi araztea citucen baster gucietan Satanen
ilhumbea, eta hedatcen jesu christoren
arguia. Sartha cen patrar dertsua cen
hirian, eta predicatu ruen han ere bere
hauri dibinoaren erreliguine saindua.
Egea cen herri hetaco gobernadorea yaquin
ruenecotçat andres patrasen cela, ethorri
cen berehala hiri hartarat nahiz debecatu
fedearen aïtziñamendua, eta bequiratu
Jaïnco faltsuen aldarac adoracionea. gure
apostolua jaincoaren borarentçat, ruen
kharra etcen nihon baratcen, huna nola
mintçatu citçayen gobernadoreari:
baduçu, O! Egea bertce gucionen yuyatceco
escu gucia: etçaïtçu bada bere bidecan
laïtequela, cuc ere ecagut baciñeca, cure
yuye ceruan datçana? etçaïtçu bada



duritcen eçagutu ordean haren handitasuna
gucizcoa, behar ciñoquezela bihurtu, cer
çagon ehorea eta behar cintuzquetsela alde
batetarat utzi eta arbuyatu cure jainco
faltsuac gure apostoluen hitzac harritu cuten
gobernadorea, erran içan ciuen: çu çare andres
hura gure templuac lurrerat artic orasterat
lehiatcen dena; onhetsi arazten duena erre-
liguine bat gure herritaco manuec con-
demnatcen dutena? andresec batere cantitu
gabe, ihardetsi ciun ruen printceac etcuten
eman halaco manuric içan balute gure
erospeneco misterioaren eçagutça, eta yaquin
içan balute sallbatçailleac athera gaïtuela
exai gaichtoaren escutaric, gu libertate
dohaxu batean eçartcecotçat. Egeac
erran ciun: hori gucioc erdute bequiratu
tu ace jenus deïtcen duçuen hura içatetu
judioer hartua eta gurutcefficatua.
aïthortcen dut ihardetsi ruen andresec, jenus içan
dela gurutceari estecatua; ordean bada deusere
gurutcea baiño ohorea gariagoric? gure ganaco
amudioaz hill içan da erosi nahi içan dumundu
gucia bere odolaren gostuz. Egeac erran ciun:
hic cer anthia diot içan den gurutcefficatua
bere nahiçat edo bere bortcha? arguia ahal da
yaquitea gurutcefficatua içan dela adoracionere

ez merecitecu. nor da hartu nahi luqueyena guiçon bat jaincotçat gurutceficatua içan dena? orduan apostolu saindua mintçatu cen gure misterio handiez hala nola Jesu Christoren sortcear, eta gure erreliguioneari darontsaten bertce gauça errespetagarriez. gobernadoreac etçuen halacoric aditcen; manatu cion andresi idolei sacrificatcear huna cer ihardetsi cuen gure apostoluac: offrendatcen dut, egun oroz jainco guciz botherexuari, ez cecenen haraguia, ez eta akherren odola; baiñan bai gurutcean imolatu den, eta narrayoric gabea den bildotsa, mundu gucia horen haraguiaz eta odolaz hazten da; halaric ere bethi osso gueldicen da, bildotsa hain da bicia sacrificatua içan denean nola imolatua içateco aitcinean. gobernadoreac ecin jasan cuen guehiago gure saindouaren solasic, altcharaci çuen preso mehatchatu çuen hill araciren cuela gurutcean ez bacituen adoratcen jainco faltsuac.
andresec ihardetsi cion bere khar saindaarequin: O! guiçen coro cure izumenduan, eta çure burugogor tasunean egonen çara bada bethi? uste duçu bada çure dichi-
duec



-duec icitcen nautela? yaquin ahal deçaquiçu ene hirisic handiena tormenten pairatcear datçala. nic dudan axecabe bakharra da ikhusteaz urrundua çarela cerucò lidetic. Cembatenaz pairaturen baitut, hambatenaz preciatuagoa içanen da jaincoac enetzat ceruan daducan golardea.
Egeac acotaraci cuen Crudelitate icigarricnarequin gure apostolua. gueroztu behar içan cuen berriz ere gobernadore barbaro haren aitciñerat. eta mintcatu citçaycon egundaiñoco khar berarequin gurutcean hiltceari catcherzeum çorion handiaz, jesusen ohoretan cenean. andresec erran cion iraino egeari: enetçat daduzcatçun tormentec ez naute batere loxatcen: egun bat edo bia iraun ahal deçaquete, eta hec içan araciren darutedan dohaxutasunac ez du içan akhabantcaric. ordean, O! Egea, tormenta gucir ikharagarria, eta cuc merecu ducuna da ifernuco sua, su bat behinere iraungitcen ez denaeta bethi indar bera içanen duena.
gobernadoreac icusten çuen etçuela deusere irabacico gure apostoluaren ispiritua: condematu çuen gurutcean hiltcerat. populua abiatu cen oihuz erraten: cer eguin du bada guiçon justu eta jaincoaren

adisquida horrec Condemnatua içatera hiriotcerat? ez ezdugu utzi behar efetutan ematerat sententzia bat hain çucen contracoa. gure saindua etzaquien non cen bozcarioz hill behar içatear jesu christoren ohoretan. othoiztu cituen guiriztino guciac ez debecatcear, ez eta lucatcear ere haren martirioa. etzuen hain laster urrundic ikhusi gurutcea non abiatu baitcen erraten, oihuz, allegrantzia gucietan: agur eguiten dautzut, O! gurutce choragarria; jesu christo hil içan denean, çure besoetan, Consecratu içan çaitu bere gorphutz adoragarriaz. arbuyatua cinen ordu hartaraiño; ordean geroztic, ongui çara preçagarria. fedea duenac eçagutcen dut çure maitagarritasuna, et badaqui nolacoa den çure içan aratzen duçun khoroa. heldu natçaitzu fidantzia eta bozcario handirequin har naçaçu çure ganat. O! gurutce preciatua, aspaldian beçantetsia hel araz naçaçu lehen bai lehen çure gaiñean hil içan den salbatçaille maitea ganat.

gure saindua egon cen bi egun, gurutceari sokhez amarratua: eta kharteen



cituen inguruetan cituen guiriztiñoac fedean irauterat eta tormenta iragan Korren arbuyatcerat ardiestecotçat bethico khoroa andreren patientziac eta animo sainduac sumindura oraiño handiagoan ematen çuen, populuguçia yuya cruelaren alderat. Egea hain cen beldurtcen; manatu cituen burreroac libratcear gurutcetic gure apostolua; ordean burreroec eman nahi içan çireneaz eguinbidetan hillac beçala Ctuzten bere besoac. ordu hartan andrehec eguin çuen, hitz gozoz, othoitz hau. ene jaincoa, ezdeçaçula permeti, çure icenean ohoretan gurutceari executua dena yautsi dadin handic. har naçaçu othoi çure erresuma dohatsurat: çure baitan dut ene fidantzia guçia ordu da goça nadin azquenean, ene bihotcac hambat maite duen bere yabe adoragarriaz. hitz hauc erran orduco, gure saindua inguratua içan cen cerucu argui distiant batez, eta arthiqui çuen azquen hatsa heltcecotzat bicitce eternalerat.

# San Augustin Aphezpicua Eta Doctora

San augustin aphezpicutasunaren ohorea eta
mundu guciaren arguia dentsula, sortzu cen
affrican. patrice cuen icena haren aitac,
eta monica haren amac. gaindi eguina cen
izpiritur: guti istudiatcen cuen lehenbicic
urthetan, halaric ikhasten cuen nahi cuen
gucia, ama saindua eguin cituen eguin
ahalac bere semea jaincoa leguean altcharaz-
tecotzat ordean passionec ceratua cadecaten
augustin handia. eçeuen bere burua baicic
aditcen. libertate sobraniazco batez gaixta-
tu cuen haren bihotca: eman citçayen arras
libertinqueriari: bere sor lekhuan eguin
cituen lehenbicico escolac. egorri cuten gue-
ro Cartagerat. eçagutçac eguin cituen hiri
hartaco gazte bere becalaco deserreguelatue-
quin. ala gostatcen baitçaitcayen monica
saindiaren erreliginonari ikhusteaz bere
semea bide gaixtoan! bere çoramendu
guciaren erdian, augustin orhoitcen cen
hoirette noizetat, bere ama prestuaren
hitz eta abisu cuhurrez. eta haren bihotz
gaixtatua iharrostua aurkhitcen cen,
dembora guticentçat bada ere.



bethi danic baçuen berthutearen aldoraco
yainduaren sunx bat. damu gaixtoric citue
la utci passionec naurteat. aseguiñequin
iracurtcen cituen ciceronen obra ederrac:
ordean bere erraten darocu hetan eçagutcen
cuela erecas bat ceiña baida ez aiphatcen
Jesu christoren icena. libertinqueriari emana
denean errechqui eguiten dio prestutasunari
ukho hala guerthatu citçayen augustini.
sarthu cen manicheenac deitcen ciren hereti-
coen enganio galkorretan, berac aithortcen
cuelaric arren sentsu onaren cutsuric etcela
heyen arrocurinamenduan.

Monica saindua etcen behinere baratcen
jaincoari othoitz eguitetic bere semearen
sagoretan erreguerutcen, cuen urricalmendu
içatearz haren arimaz declaratu cuen bere
bihotz miña aphezpicu bati, ceiñac contsolatu
baitçuen erraten cioela: çuaci, ene alaba eguiten
guerorat ere orai artaraiño beçala othoitçac
eta nigarrac, eta ez da errana galdu dela
ume bat hambat nigar goça gosta dena.
ecin errana daite cembatetaraiño hedatcen cen
augustinen yaquintasuna. erretorica ikhasi
cuen erroman cartagen eta milenen: bere-
ganatcen çuen gucietan miraconzac admiatione

 Sarthu cenec milango hirian. lehiatu
cen icusterat ambrosio hango apheztpicua
guiçon saindu hunec hartu çuen haren bihot
çarez içabartecogai cen arraitaturicarequin.
augustin baçabillan ambrosioren predicuetara
eta laster sentitu çuen bere contzientziaco
harra ordocotzat confundetu çuen mani-
cheen arteco apheztpicurie famosena ekhar-
requin içan citurten solasetan: arbuyatcen
çuen heresia hura. ochala emartequi deho-
cabe batequin çaraman bicitze gaixtoa
ez balu guibelatu bessarcatcetic erreligione
catholicoa; ayquien arren hura cela bakhar-
ric eguiazcoa.

Moniccac etcuen nihoz utzegurie bere
semea gabe, hedatu cen milanat aguian
jaincoaren garaco cela ambrosio saindua-
ren laguntçarequin. aurkhitu çuen bere
seme maitea, ez, eguia da palumpatua
lehen beçala manicheen heresian, ordean orai-
no guiristiño eguin beharia. amaren
nigar minec, eta ambrosioren hitz sarkhor-
rec erakharri çuten augustin handia
solasean sartcerat simplicien çariteon
apher peertu batequin. simplicienec mintçatu


citzayen çaraman bicitze gaixtoaz, eta
conbertitceco çuen premia handiaz. Cordocatua
aurkhitcen cen augustinen bihotza: baçaguien
sentitcen ere çuen etcela bide onean; nahi
çuen conbertitu: ordean etcitçayen finçai
lotcen obra handi hari.

Aliperen eta augustinen adisquide
ponticien deitcen cenac, ediren çuen liburu
saindu bat augustinen guelaco mahañen
gaiñean. jaincotiarra cen adisquide hura,
axeguin hartu çuen liburu on hura han
edireteaz. mintçatu citçayen bi adisquide
hei liburu saindu harc eraguin cituen
conbertsione ederrez ekharri ere aitcen
exempluric ugui garrienetarat. ponticien
bere etchearat bihurtu cenecotz, augustin
altchatu cen bere lekhutic bihotza tosta-
tua cuelaric. eta erran cion aliperi: cer
hari gare ere adisquide maitea? certan
daramagu gure dembora? erraña içanen
da bada deusere ezdaquiten batzu sarthuco
direla ceruan eta gu gure yaquintasun
guciarequin ifernean herrestan ibillico gare-
la? cer bada? ceren gu laiño çuhurrago
içan diren, eta ceren aitzindu gaituzten,

hori içanen da arrocitu edo estacuru bat ez hoï yarraiquiteco? horrequin batean badoha hitzic erran gabe baratcerat; alipec ere hartcen du bide bera baratcearen burura; ciren-ian augustinec utzten du bere laguna arthiquitcen da bere burua lurrerat eta mintço da nigar marrasquetan »noiz arteraiño jauna noiz arteraiño egon »rico dut bada biharamunerat eguin eguin »ahal decaquedana? cergatic ezdut orai »eguiñen bihar eguin decaquedana».

hitz hauc erratearequin ençuten quen ceruco botz bat cioena: (har eçacu eta iracur açu har eçacu eta iracur açu) augustinec ezdu haiñ laster ençuten boça hura non altchatcen baïda lurretic, eta baïdoha alipe gana hartcen du escutarat adisquide haren aldean utzi cuen yaundoni paulen guthunen edo epistolen liburua, çabaltcen du, eta beguitarat heldu çaïzca hitz hauc: urrun çaite libertinqueriatic, placer liçunetaric, eta eman çaquitzco yem christori.

hura içan cen ordu dohatsua augustin bere conbertitzeari jinqui lothu citçayoena. alipe ere itçuli cen ordu



berean, jaïncoa ganat, ereman cituzten berri consolagarriac Monica saïnduari. O! cer boçcario ama bihotz onetaco eta jaïncotiar harentçat. Augustin urrundu cen hiritic largatcecotçat bere burua osoqui othoïtçari: yarraïqui citçayon alipe bere adisquide maïtia. handic laster bataïatua eta bertcec errecibitu çuten bathayoa ambrosio saïnduaren escuz. augustinec bacituen ordu hartan hogoi eta hamabiruz urthe. gaitz citçayon munduan salbatcea. bilhatu çuen afrícan lekhu gucisaco bat penitentcia eta nigar eguiteco bere bekhatuez. Monica nahico citçayen yarraïqui bere seme maïte eta eguerdaïño baïño maïttago çuenari: ordean jaïncoac deithu cuen bere gana semeac mingui auhendatu çuen bere ama maïtea, hambat nigar harengatic issuri içan çuena. emazte saïndu hura hil içan cen ostia deitcen hiri batean.

handic hirur urtheen buruan, augustinec nahi içan çuen conbertitu hipona hirian bere adisquide bat, merecimenduz bethea, eta gure saïnduaren galdea çuena. valero hipponaco aphezpicuac yaquin çuenéco augustin hiri hartan çela, erran cion populuari baçuela

aphez baten beharra bere eguimbidea bethet-
ceco. hiri guciac baçaquien augustinen berthu-
tearen eta yaquintasunaren berri, eta guciec
hura nahi çuten aphezpicuaren aphez lagunt-
çaille; ordean eçaguturen çutenguero sainduaren
humiltasuna beldur ciren etçuela içan na-
hico altchatua apheztasunerat. cer eguin
çuten? hartaz yabetu ciren eliça bethean
batere ortçuin gabe haren arracoïnac eta
othoïtçac. augustinec eman behar içan
çun bortchari amor; ordenatua içan cen aphez
Valera aphezpicuaz.

gure sainduac eraguin çuen conventu bat
hipponaco hirian: bildu cen harat mondutce
handi bat batean bicitcerat pobreçian barurean
eta othoïtcean. explicatu çuen concilio
batean fedearen simbola hunembat yaquin-
tasunequin non altchatu baitçuten bere bortcha
aphezpicutasunerat heretico guciac lastu
eta ikharatu ciren ebitçun çutenean san
augustin aphezpicu cela: arrocian ere baçuten;
ecen yaçarri çuten khar saindu batequin.
hartaz mintço cen mundu gucia: oracle batean
beçat çaducaten baztar gucietan.



San augustinen humiltasunac etçuen deusere
çer haren yaquintasunari; ez bide da geiçonic
hare baino guehiago beheratu duenic bere burua.
orhoitçen cen bere erdeustasunaz, eta eteitçaizcon
bihotzere ahantsten bere gaztetasuneco çoramenduac.
humiltasunac erakharri çuen eguiterat bere
Confesionen liburua: nahi çuen yaquinxun
eguin mundu gucia bere gazte demboraco
flaqueciaz, eta hunki aroci bere saindutasu-
naren fama çuen bideraco.

hipponaco hiria içan cen armada handi bataz
sethiatua baciren aphezpicua bere eliçac eta
populuac utzi citzaztenac ezaguen beldurrez
bertcela eguin çuen san augustinec etçuen behi-
nere hastaundu bere populu maitea yanic era-
kharteen çuen bihotça jaïncoa ganat altchat-
cerat eta beraz nigarretan caramatçan gau eguna
othoïzten çuen jaïncoa ez cuzphidezteaz art-
caiñac eta beguiratceaz aïdie, eçagutu çuenean
hiria erorteerat cohala ezaguen escutarat çu
queritu çuen jaïncoa arren eraman çeçan mun-
da huntaric ikhusi gabe eguin dohacabe hura
ontcena içan cen haren othoïtça: hil içan cen
ezaya hipponaco hiriaz yabetu gabe. hartu
citues sacramenduac fede biciarequin, eta
eta jaïncoaren aldeaco amudio kharxuena-
requin. haren gorphutça italian da, Paviaco hirian